


HERNANIKO UDALETXEA

**EL
AYUNTAMIENTO
DE HERNANI**



EGILEA:

JON OÑATE LIZARRALDE

ITZULTZAILEA:

GARLO (Itzulpen zerbitzua)

ANTOLATZAILEA:

Hernaniko San Joan Konpartsa
2017ko Ekainaren 27a

ITURRIAK:

- HERNANIKO UDAL ARTXIBOA
(Jesus Mari Gómez)
- HERNANI eta HERNANIARRAK
(Antxon Aguirre Sorondo)
- HERNANIKO UDALETXEA
Jokin Fernandez Ayarragaray
Hernaniar Arkitektoaren Obra
HERNANI 1994
(Juan Ignacio Elizondo), Arkitektoa
- LA CASA CONSISTORIAL DE FINALES DEL XVII
HERNANI 2005
(Pedro Pablo García)
- HERNANI entre DOS GUERRAS (1872-1936)
Medio Siglo de Vida de Hernani
(Luis Blas Zuleta)





HERNANIKO UDALETXEA

Hernaniko udaletxea garai bateko Plaza Nagusian dago, elizaren ondoan, herriaren bihotzean. Domingo de Lizaso historialariaren teoriaren arabera, Alcega sendiaren etxearen inguruan antolatuta dago udalerria.

Aipurik zaharrenak 1551koak dira; orduan egin zuten kontzeju-etxe berriaren horma, «zaharra» zegoen toki berean, parrokia-elizatik gertu, Domingo de Olozabal maisuaren esanak betez.^❶

Udaletxeak hainbat eginkizunetarako balioko zuen; herriko artxiboaren egoitza izateko eta defentsarako armen gordailu izateko, besteak beste. Arma horiek zaintzeko ardura herritar bati ematen zioten, urtez urte. Armamentu hori Espiritu Santuaren Bazkoaren bigarren egunean ateratzen zuten kalera, eta inguruetako jende asko hurbiltzen zen egun horretan, tiro-ariketak eta txapelketak ere izaten baitziren.

Agiriak gordetzeko orduan, kontu handiz jokatu du beti Hernaniko Udalak. Hain zuzen ere, horregatik da bertako udal-artxiboa probintziako oparoenetakoa, asko izanagatik ere Hernanin gertatutako gorabeherak (gerrak, suteak, arpilatzeak; udaletxean bertan leherketa bat ere gertatu zela ahaztu gabe). Ardura horren erakusle da udalbatzak 1608ko irailaren 23an hartu zuen erabakia: artxibotik agiri bat atera ahal izateko, udalerriko letraduarengana jo beharra zegoen; letraduak eskatzailearen argudioak aztertzen zituen, eta gero kontzejuari jakinarazten zizkion, hurrengo bileran.

1673ko ekainaren 26an, Antonio de Miner alkatearen ekimenez, udaletxe berria eraikitzea erabaki zuten.

Asmoa ez zen eraikina Elizaren dorreraino zabaltzea, orain dagoen bezala; beraz, ondoan inolako eralkink itsatsita izan gabe jarraitu zuen parrokia-elizak.^❷

Eraikitzen hasi baino lehen, Joseph de Agulrreren etxea eraitsi behar izan zuten. Gaur udaletxea dagoen leku berean zegoen etxe hura.

Obraren hasierako proiektua Villalcázarreko kondeari eskatu zioten; eraikuntza-lanak, berriz, Juan de Zavala Garagarza hernaniarrari. Azken hori arotzeriaz arduratu zen, eta harrobia Juan de Lizarragari azpikontratatu zioten; Amasako hargin maisuari, alegia.

Lizarragak diseinatutako proiektua Villalcázarrena baino arranditsuagoa zen, eta bost oin luzeagoa. Horrek, gainera, luzetara handitzeko aukera ere eman zion, enparantzako etxeei begira egitekoa zen antolamendu berria aintzat hartuta.

❶ ASTIAZARAN ACHABAL, María Isabel: «El Ayuntamiento de Hernani. Un proyecto trazado y llevado a cabo por Juan de Lizarraga». Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián, Dr. Camino, 22. Donostia, 1988, 219. or.

❷ XIX. mendearen bigarren erdialdean erantsi zitzaion bikario-etxea.


Hasiera batean egindako proiektuaren arabera, sei arku izango zituen fatxadak, eta, arku horietako bakoitzaren gainean, goiko solairuan, bao dinteldu bat egongo zen. Dorre bakoitzerako, aukera ezberdinak hautatu zituzten: mendebaleko dorrean, jarraitutasunaren alde egingo zuten, goiko solairuko eredia errepikatuz; ekialdeko dorrean, berriz, erlojuaren aldekoan, bi arku egingo zituzten, haietan erlojuak eta kanpaiak jartzeko.

1673ko uztailaren 30ean Kontzejuak eta Juan de Zavalak sinatutako eskrituran, eraikuntzan erabili beharreko materialak zehaztu zituzten; besteak beste, honako hauek:

- Harriak Santa Barbara mendiko harri beltza behar zuen izan.
- Zurak Kontzejuaren jabetzako hariztietatik ekarria behar zuen izan. Basoa Martindegi baserriaren inguruko mendian zegoen, eta 900-1.000 haritz inguru zeuden han.

Betebehar gisa, hauxe zehaztu zuten:

(...) ERABILI BEHARREKO EGURRAREN ZATI BAT OTSAILEKO ILBEHERAN MOZTU, ETA URETAN UTZI, ERABILTZEKO GARAIA IRITSI ARTE, SENDOAGOA IZAN DADIN (...)



Obrak 1678ko uztailaren 25erako bukatuta egotea espero zuten, baina dezente luzatu ziren; besteak beste, 1681ean egindako ikuskapen batean ohartu zirelako plazara ematen zuen fatxada erortzen ari zela (esaten zutenez, hasiera batean zehaztutakoa baino altuera handiagoa eman zioten eraikinariei, eta zimenduak ez ziren gauza hainbesteko zamari eusteko; bolada hartan izan ziren haize-erauntsiek ere izango zuten zerikusirik, beharbada). Gauzak horrela, Lizarraga

maisuk fatxada hura eraistea eta berria eraikitzea erabaki zuen, eta, bidenabar, goiko solairuko galerian eta bi dorreetan aldaketa batzuk egitea.

Obra aurrera zihoala, 1685eko urriaren 19an (lehen dependentziak erabiltzen hasi ziren garaian agian) etxe berrian kokaturiko armategiko inbentarioa egin zen, ondoko emaitza honekin:

Bandera bat bere hagarekin, azkon bat bere zinta beltzekin, Indietako kanaberazko bi lantza motz zilarrezko ertzak dituztenak, bi alabarda, urrezko erremateak dituen erredola bat erdian San Migelen irudia duelarik. 83 moskete bere kaxa (bolbora) eta guzti eta baketaz hornituri (honek zera esan du, aurrekargakoak zirela). moskete-kainoi bat (ez kaxa ez baketa). mosketeentzat 84 flasko handi eta 82 txiki eta 84 flaskoeramaile antezkoak, mosketeentzat 8 urkila (tiratzeko momentuan euskarri izateko), 3 arroa bi libra gutxiago bolbora bi tapa eta uztaidun barrikan, 66 libra metxa, bi barrikatxo balaz beteak eta 46 astamakll.

1766an, beste zerrenda bat egin zen eta honi esker jakin badakigu zer bilakaera jasan zuen armateriak, aurrekargakoak zirenak baztertu eta pisu gutxiagoak zirenez urkila beharrik ez zen orain, beste aldaketa batzuren artean.

Hona hemen inbentario berria: bandera bat bere poltsarekin, 111 fusil (hauetarik 71 giltza zaharrekina eta 50 berriekin), 94 baloneta beren zorroarekin, 6 alabarda, 31 moskete-kainoi, 54 kartuxera uhalez eta erregidoreen kartutxerak (forru urreztatuz hornituak), kalibre desberdinetako balak, farol handi bat, brokel bat.

Zerga-bildegiko ontzei buruz honako hauek aipatzen dira:

Kobrezko neurriak, bost likoreak neurtzekoak, lurrezko kankarro bat ura ekartzeko.burdinezko haga bat, galtzurua neurria, eta lakaria, lakarl-erdia, txila, barra-neurgailua balantza eta burdin-gurutzea (erromatarra), lau llbrako, biko eta batekoarekin, laurdena, bi ontzekoa, bat eta erdikoa, eta halaber beste pisu erromatar berria.


Edifizio berean zegoen presondeglaren gela desberdinetan sei gurgilu pare zeuden eta bost esku-burdin, sei giltzarapo eta beste bat zepoak daukana, brontzeko kaldera bat, errondako linterna eta enkanteetan erabili ohi den beste bat eta bi kantinplora.

Eraikuntzaren dorre bien estallak akabatzearekin, 1694an, Francisco de Uerecoetxea donostiarra-ren obra, amaitutzat ematen dira obrak.

BEHE-SOLAIRUAN


honako hauek zeuden:

- Arkuak. (A)
- Herrirako sarrera. (D)
- Kartzela (E), zinpekoaren etxebizitzara ematen zuten eskailerekin.
- Lanabesen biltegia. (G)
- Alondegia (ale eta elikagaien biltegia). (Y)




LEHEN**SOLAIRUAN:**

- Zinpekoaren etxebizitza (K); udal-langileen hiru etxebizitzetan txikiena zen, eta kartzelarako sarbidea zeukan.
- Eskola (L), eskailera nagusitik sartzen ziren mutilak bertara (neskak ez ziren eskolara joaten).
- Maisuaren etxea (M), eskolaren ondoan.

**GOI-SOLAIRUAN:**

- Galeria. (O)
- Ganbararako eta Erloju-rako sarbidea. (Q)
- Bilkura-aretoa. (R-S)
- Sendagilearen etxebizitza. (V)



Handik urte batzuetara, Zavalaren alarguna zenak, Maria Juan de Berrasoetak, eta bere seme-alabek 8.532 erreale eta marabedi 1 (orduko dirutan) ordaintzeko eskatu zioten udalari, eraikuntza-lanek eragindako gastuengatik, lanak artean ordaindu gabe zeuzkan eta. 1700eko abuztuaren 9an kitatu zuten zorra.

JUAN DE LIZARRAGARI HERNANIN GERTATUTAKOAK

Udaletxea eraikitzeko obrak zirela eta, Juan de Lizarragak eta bere sendiak Hernanira lekualdatu behar izan zuten. Udaletxearen audiforetza-lanen arduradun ez ezik, hargin maisuetako bat ere bazen, 1693an eliza-parrokiako dorrea eraikitzeko prozesu luzean. Kontratu bat sinatu zuen horretarako, eta, hurrengo urtean, Igeldoko biztanleekin adostu zuen dorrea egiteko harria bertatik ekartzea. Eskrituran jasotzen denez:

«SANTA KATALINA PORTURAINO ERAMAN BEHAR ZUTEN HARRIA URUMEA IBAIAN, ETA, GERO, GABARRA BIDEZ, HERNANIRAINO ERAMAN. HARRIAK HAREHARRIA BEHAR ZUEN IZAN, ETA DONOSTIAKO SAN BIZENTE ELIZAKO ATARI BERRIRAKO ERABILITAKOAREN KALITATE BEREKOA».

Juan de Lizarragak istilu bat izan zuen Hernanin. 1675eko uztailaren 23^{ko} gauean, alkateak «makilarekin» esku hartu behar izan zuen, Juan de Lizarragaren eta ~~Pedro de~~ Aranburu herna-

niarraren artean kalean bertan gertatutako liskar batean. Beste herritar batzuek ere izan zuten zerikusia iskanbila hartan; haietako batek, Nicolás de Zuaznabarrek, ezpata zorrotik atera eta guzti egin zuen. Lizarragak aurpegian arma zuriz egindako zauri bat zeukala ikusi zuen alkateak, eta ikerketa bat abiarazi zuen, gertatutakoa argitzeko.

Lekukoek adierazi zutenaren arabera, egun hartan, dozena bat hernaniar dirudun Erreenteriako Madalen jaietara joan ziren, zezenak ikustera, ohitura hori zeukaten eta. Juan de Lizarragak zela bat behar zuen bidaia hura zaldiz egiteko, eta Pedro de Aranburuk utzi zion. Helmugara iritsitakoan, hernaniarrak banatu egin ziren. Itzultzean, herriko plazan, Lizarragak eta Zuaznabarrek Donostiako neska gazte bat topatu zuten, eta (gaur egun esaten den bezala) «ligatzen» hasi ziren. Halako batean, «pasatu» egin ziren, nonbait, zeren, lekukoek arabera, emakumeak bi masaileko eman baitzizkion Lizarragari, eta ileetatik tira ere bai. Gizonak, orduan, jo egin zion emakumeari, eta Zuaznabar hori ekiditen saiatu zenez, borrokan hasi ziren bi gizonak, eta litekeena da Lizarragak bekainean ebaki batekin amaitzea.

Gaueko iskanbila aurrekoaren jarraipena izan zen. Antza denez, Ergobia atzean utzi eta gutxira, Lizarragak ezin izan zuen zaldia menderatu, eta ihes egin zion. Pedro de Aranburu haserretu egin zitzaion Lizarragari, zaidiari tratu txarrik eman behar ez ziola esanez, baina hargin maisuari ez zitzaion batere gustatu jendaurrean berari halakorik aurpegiaratu izana, eta Aranbururen eltxera zuzendu zen, azalpen eske. Eta horrela sortu zen gaueko liskarra.

Tirabira hura alkateak ebatzi zuen, bi hernaniarrak kartzelara bidalita: bai zaldiaren hornitzailea, Aranburu, eta bai emakumea defendatzearren daga atera zuena ere, Zuaznabar. Biek ala biek denboratxo bat eman behar izan zuten espetxean, harik eta Juan de Lizarragak alkateari jakinarazi zion arte ez zeukala bi glizon halek salatzeke asmorik.

KARLISTALDIAK

LEHENENGO KARLISTALDIA (1833-1840)

Fernando VII.aren ondorengotzarekin hasi zen. Elkarren aurka jarri ziren, batetik, Fernando VII.aren alaba Isabel II.aren aldekoak (isabeldar eta/edo kristinatar deiturikoak (Kristina erregenteagatik), edota liberal) eta, bestetik, Fernando VII.aren anaia Karlos V.aren aldekoak (karlistak, alegia).

HERNANI ETA LEHENENGO KARLISTALDIA





Zumalakarregi jeneralaren tropa karlistak geldiarazteko, kristinatar gudarosteak laguntza eskatu zien Europako potentziei. Europako potentzia horiek ez ziren gatazkan murgildu, baina baimena eman zuten boluntarioek bertan parte har zezaten. Donostia liberalera 1835eko uztailaren 10ean iritsi ziren aurreneko talde ingelesak. Bien bitartean, hiriburuari eraso egiteko prestatzen hasi ziren Hernanin, karlisten aldekoa baitzen herria. Gauzak horrela, azaroaren 23tik aurrera, Donostia setiatzen hasi ziren hernaniarrak. Alabaina, kristinatarrek kontraerasoa egin zuten, eta 1837ko martxoan Hernanirantz abiatu ziren. Hernaniarrek ihes egin zuten, inguruetako mendietara. Tropa karlistek Santa Barbara mendian hartu zuten babesa.



Martxoaren 16an, Oriamendiko gatazka lehertu zen; bizpahiru mila gizasemek galdu zuten han bizia. Liberalak, karlisten eraginez, Donostiara itzuli ziren, babes bila. Liberalen porrot horren ostean, Espartero jenerala Gipuzkoara etorri zen, probintziako udalerri nagusiak konkistatzeko asmoz (Hernani, Oiartzun, Irun eta Hondarribia). Hala, maiatzaren 9an liberalak mendean hartu zuten Hernani, ordurako abandonatuta zegoena, bai eta Santa Barbarako gotorlekua ere.

Gerraren azken atala Bergaran gertatu zen, 1839ko abuztuaren 31n. Espartero liberalak eta Maroto karlistak bakeak egin

zituzten, elkarri besarkada bat emanez (Bergarako Besarkada deitzen zaio), eta, besteak beste, Foruak errespetatzea erabaki zuten. Nolanahi ere, handik hiru urte eskas igaro zirenerako, indarra galdua zuen adostutakoak.

Hurrengo hamarraldietan, oso aldaketa handiak gertatu ziren gizartean, politikan eta ekonomian: industrializazioa, garraiobide berriak, etab. Arlo politikoan, foruzaletasuna indartsu berpiztu zen.

HERNANI ETA BIGARREN KARLISTALDIA (1872-1876) (HIRUGARREN KARLISTALDIA ERE DEITUA)

1868an, Isabel II.ak, oporraldia Gipuzkoan lgarotzen ari zela, Frantziara lhes eglIn zuen. Eta karlistek botere-hutsunea aprobetxa ez zezaten, liberalek (kasu honetan, Hernanikoek) ehun boluntarioko batalloia osatu zuten, herria defendatzeko (Hernanik 230 biztanle inguru zeuzkan, artean). Kanoi bat zeukaten elizako dorrean, eta txandak eglften zituzten herrian barna, egoitza nagusia udaletxean zeukatela.

Urte batzuk lasai antzean igaro eta gero, 1872an beste matxinada bat egin zuten karlistek. Hernani inguruetan, Santa Kruz apaiz ospetsua zebilen, karlista. Urnietan ikusi zuten 1872. urtearen amaieran. 1873ko apirilaren 13an, haren gizonak milizia lberalen aurka borrokatu ziren, Ergobiako zubian. Beste batean, herrian sartzea eta tren-geltokiari su ematea lortu zuen apaizak. Tirabira eta liskar armatuak ugaritu egin ziren, eta artilleria karlistaren jazarpena itogarria bihurtzen hasia zen; barrikadak eta herrigunea babesteko defentsak prestatzen aritu behar izaten zuten hernaniarrek.




1874ko maiatzaren 30ean, karlistak Hernani inguratzen hasi ziren, Santioagomendin, Montevideon eta Oriamendin kokatuta.

Setioan, hamabost bateria izan ziren Hernani inguratzen; zehazki, leku hauetan:

- BURUNTZAko gordelekuan.
- DERREPENTE haitzean.
- BURUNTZAren inguruetan.
- AZKORTEn.
- GOIBURUn.
- BASAUNen.
- SANTIAGOMENDI.
- SANTIAGOMENDIren eskuin magalean.
- SANTIAGOMENDIren ezker magalean.
- ARBIZA PORTUn.
- ANTONENEAn.
- ARRIKARTEn.
- UZTIA GAINAn.

Kontrako aldean, berriz, Hernaniko plazaren defendatzaileek Santa Barbarako gotorlekua zuten bastioi, eta mendi-kanoi bat ere bazuten, mojen komentuarien ondoan.



III. GERRA KARLISTAKO SANTA BARBARA-REN GOTORLEKUA:


1. Telegrafoko dorreoi zirkularra.
2. Dorreoirako sarbidea.
3. NW Bateria.
4. NW bateriarako sarbideko arrapala.
5. Gotorleku pikoan, gotorlekuaren bi lanen arteko komunikazioko Caponera.
6. Gotorlekurako sarbidea.
7. Kamaina.

8. Kuartel 1.
9. Taberna.
10. Sukaldea.
11. Desenkusatuta.
12. Ofizial-pabiloirako sarbideko eskailera.
13. Elikagai-biltegia.
14. NE Bateria.
15. Munizio-ordezkoa.
16. Bateria SE.
17. 2. kuartela.
18. Uharka.
19. 3. kuartela.
20. Aulkia.
21. Bateriarako sarbideko arrapala SW.
22. Bateria SW.
23. Guardia gorputza (sarjentua).
24. Guardia gorputza (tropa).
25. Plataforma aspillerada nagusia.
26. Zuloa.

Ekainaren 2an, setlatzaileek amore eman behar izan zuten. Udalak egindako memorial batean jasotakoaren arabera, 1.368 jaurtigai disparatu zituzten setioan, eta 2.165 granada bota zituzten karlistek; etxeetako horma gehien-gehienak kaltetuta geratu ziren. Bixikeria modura, jakin ezazue ekainaren 2a efemeride modura erabili zutela urte luzez Hernanin, festa garrantzitsuak ospatzeko. Gaur egun, jada ez da halakorik ospatzen.

Gerora, 1875eko maiatzaren 23an, udaletxea artilleria-parke blhurtzea erabaki zuen plaza-zako gobernadore militarrek.

1875eko irailaren 16an, arratsaldeko lau eta erdiak zirenean, karlistek granada bat (2404. zk.) jaurti zuten Santiagomendiko bateriatik; granada horrek artilleria-parkea jo zuen, eta, bolbora gartzean,



leherrarazi egin zuen eraikina. 27 pertsona hil ziren, eta 17 zauritu, gudari liberalak eta herritar xumeak. Hondamendi horrek bikario-etxeare ere eragin zion; eraikin xume bat zen hura, udaletxearen eta parrokia-elizako dorrearen artean kokatua; biekin zegoen komunikatuta, eta militarrek hartuta zeukaten hura ere.



1876ko urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean, karlistek jaurtitako bonba bat Guillermo Joaquín Indalecio Bizkarrondo Ureña "Mokoren" etxean sartu zen. Donostiako Antzoki Zaharrean blzi zen gizona, hango atezaina baitzen. Umetan izandako istripu batek itxuratxartu egin zion aurpegia, eta horregatik deitzen zioten Moko.

Liberaien alde borrokatu zen, laugarren batailoi liberalean. Aipatutako bonbak zauri larriak eragin zizkion, eta bi hankak moztu behar izan zizkioten. Sei hilabetez gorriak ikusi ondoren, 1876ko uztailaren 21ean eman zuen azken hatsa, Euskal Foru Araubidea indargabetu zuten egun berean.

BILINTXez izenarekin igaro da Guillermo Joaquín Indalecio Historiara.

Gerra kariista horrek Hernanin eragindako kalteen baiantzea haxe izan zen:

- Herritar militarren artean: 47 hildako eta 146 zauritu.
- Herritar zibilen artean: 16 hildako (4 haur) eta 52 zauritu (11 haur).





- Hernanin zeuden 174 baserrietatik, 12 hondatuta geratu ziren, 14 hutsik, eta 10 besterik ez ziren izan kalterik gabeak.



Gerraren atzera-aurrera haien ondorioz, 1873an 400 gizon egon ziren herrian ostatu hartuta; 1875ean, egunero 1.500 inguru ere bai. Gauzak horrela, gudulari asko hartu behar izaten zituzten etxe bakoitzean, Hernanin ez baitzegoen hainbeste jenderi ostatu emateko adina kuartel eta/edo eraikin.

Ospitalean, 800 egonaldi erregistratu zituzten, eta 300 ohe ere jarri zituzten, udaletxean batzuk eta Lopetegui jaunaren etxean beste batzuk.

Hernaniri sortutako kostu ekonomikoa hauxe izan zen, pezetatan:

BOLUNTARIOEK ERAGINDAKO GASTUAK	69.564,00
ARMADARI EMAN BEHARREKO AURRERAKINAK	197.400,00
GOTORTZEKO OBRAK	66.875,00
ESPARRUKO OBRAK	25.700,00
EGURRA	14.000,00
 GUZTIRA	 373.539,00

Udalaren egoitza hondatuta zegoenez, Korporazioak egonleku batzuk alokatu eta egokitu behar izan zituen, zerbitzuak haietan kokatzeko (bulegoak, alondegiak, musika-aretoa, eskola publi-

koak...), lehen udaletxean baitzeuden haiek guztiak.

Udalbatzako kideen artean berehala piztu zen txikitutako eraikina berreraikitze gogo, baina, horretarako, behar-beharrezkoa zen Estatuak hondamendia eragitearen truke konpentsazio ekonomikoa ematea. Kalte-ordaina jasotzeko prozesuari hasiera eman zioten, beraz. Prozesu horrek, burokraziarekin lotutako arrazoiak tarteko, eta kasuaz arduratzen zen Agintaritza Militarren axolagabekeria eta ezin ulertuagatik, hamar urte iraun zuen. Estatuak eta Udalak izendatutako arkitektoek leherketak eragindako kalteak tasatu zituzten arren, eta, gerora, desadostasunak egon zirenez, hirugarren arkitekto batek balorazioa egin bazuen ere, Agintaritza Militarrek ez zuen onartu guztizko zenbatekoa (111.792,22pejeta), eta, inolako argudiorik eskaini gabe, 31.432,62 pezetatan utzi zuen kalte-ordaina.



1882an, Estatu Kontseiluak 81.585,38 pejeta aitortu zituen udalerraren alde, udaletxean eragindako kalteengatik eta artilleria-parke modura erabiltzearen alokairu gisa, baita udalzerbitzuek hartutako eraikinen alokairu gisa ere. Hurrengo urtean, eta zergati hargatik beragatik, 10.000,43 pezetako kalte-ordaina aitortu zuen parrokia-bikariotzaren alde. Alabaina, Hernanik ez zuen jaso kalte-ordainaren zenbatekoa 1885-1886 ekitaldiko aurrekontua onartu zuten arte; 1885. urtearen bukaeran ordaindu zioten zenbateko hura.

Hilabete batzuk lehentxeago, Udalbatzak, udaletxea konpontzeak zeukan garrantziaz jabetuta, eta adituen aholkularitza jasotzea merezi zuela sinetsita, bilera batera deitu zituen aurreko

hamar urteetako zinegotzi guztiak. Bilera hartan, aho batez erabaki zuten Joaquín Fernández Ayarragaray³ arkitekto hernaniarrarengana joko zutela, udaletxea berreraikitze egitasmoa eta lanak zuzentzea eskatzeko.

PROIEKTU ARKITEKTONIKOAREN EZAUGARRIAK

1886ko uztailaren 3an, Joaquín Fernández Ayarragaray arkitektoak «**HERNANIKO UDALETXEA BERRERAIKI ETA ZAHARBERRITZEKO PROIEKTUA**» aurkeztu zuen. Honako agiri hauek zituen proiektuak: memoria, aurrekontua, baldintza tekniko eta ekonomikoak, eta fatxadaren zein solairuen planoak.

Berreraikitze-proiektuaren ideia txurrigeresko-estiloko antzinako udaletxearen azterketan oinarrituta zegoen, baina Joaquín Fernández iruditu zitzaion fatxada nagusiaren zurruntasuna, monoto-

³ Joaquín Fernández Ayarragaray 1821eko abuztuaren 17an jaio zen. San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademian peritu agronomo eta arkitektoasketak egin zituen, eta Sevillako Arte Ederren Eskolan katedra bat izan zuen. Obra asko gauzatu zituen Sevillan. Berak eraiki zuen Hernaniko Murua jauregia ere («Oblatuak»). 1900eko martxoaren 26an hil zen.



nia eta zorroztasuna ez zirela udaletxe baterako oso egokiak.

Errespetatu egin zituen behe-solairuko sei arkuak, eztandaen ostean onik atereak baitziren, eta arku horien altuerara eta proportzioetara egokitu zituen proiektuaren gainerako elementu eta solairuak.

Arku horiei zazpigarren bat erantsi zien, bikario-orubean, eta eraikina, eraitsi ostean, udaletxe berriaren luzapen bihurtu zuen, balna haren erabateko independentziari eutsiz. Horrela, plazako lerro osoa lxtea lortu zuen, eta fatxadaren erdi-erdian kokatu zituen ate nagusia, lehendakaritzaren balkoia, erlojua, Hernaniko armarrria, eta abar.

Diseinatutako eraikinak zati hauek zeuzkan:

BEHE-SOLAIRUA, BEHEGAINA, SOLAIRU NAGUSIA ETA TEILATUPEA.

Hiru eskaileraren bidez komunikatuta zeuden: eskailera nagusia, erdian, eta eskailera apalago bana, alde bakoitzean.

BEHE-SOLAIRUAN, atari zabal bat zegoen hasieran, eta arkuetako batetik Urnietaranzko errepidea igarotzen zen, eraikin osoa zeharkatuz. Bidearen ezkerraldean, espetxea eta eskailera zeuden, goiko solairuetara eramateko, bai eta atzealdeko fatxadara ematen zuen lurpeko areto txiki batera ere, zati batean suteetarako ponpa zena eta beste zati batean zezentegia.

Bidearen eskuinetara, sarrera nagusia zegoen, eskailera inperial eta guzti, eta eskaileraren bi aldeetara, berriz, biltegia, udal-arbitrioak, bulegoa, alondegia (atzeko fatxadarako atearekin) eta zerbitzuak.

Ataria Ezkiaga pasealekuarekin lotzen zuen bidetik, bikario-etxera joateko eskailerara jotzen zen.

BEHEGAINA hiru zati independentetan banatuta zegoen, eta bakoitzak bere eskailera zeukan. Ezkerraldean, musika-akademia, kuartel-aretoa, ofizialentzako logela eta komunak zeuden. Erdian, Udal Epaitegia, bere areto eta gelekina. Eskuinaldean, bikario jaunaren etxeko gela batzuk.

SOLAIRU NAGUSIAK bi zati zeuzkan: udaletxeari zegokion zatia eta bikario-etxea. Udaletxearen zatian, bilkura-aretoa, harrera-aretoa (ertzetan gela birekin, bat konferentzia sekretuetarako eta bestea bulego publiko izateko), alkatearen bulegoa, Idazkaritza, artxiboa, jantzitegia, komunak, eta abar. Bikario-etxearen zatian, etxea osatzen zuten gelak zeuden.

TEILATUPEAN, bi etxebizitza egin zituzten aguazilentzat, teilatuan horretarako txapltulak egokituta.

Joaquín Fernándezek zinez eskertzekoa den ahalegina egin zuen Hernanin udaletxe dotore eta bikaina eraikitzeko; ikusi besterik ez dago zer-nolako arretaz diseinatu zituen fatxadetako elementu apaingarriak (fatxada nagusikoak, bereziki) eta barruko dekorazioa (eskailera nagusia, harrera-gela, eta abar). Ñabardurarik txikiak ere jaso zituen planoetan.

Asko zirenez egin beharreko xehetasunak (zutabeak, mentsulak, zintzilarioak, lehoi-buruak, horma-hobiak, iragarkietarako koadroak, apaingarriak, eta abar), eta ez zuenez gehlegizko gas-tua eragin nahi, zementua eta harria erabiltzea erabaki zuen. Prozedura hori bera Sevillako katedraleko atari nagusia zaharberritzean ere erabili zuen Joaquín Fernándezek.

Aurreikusitako obren aurrekontu orokor laburbildua, pezetatan, hauxe zen:

UDALETXEA	134.990,51
BERRERAIKITZEKO ETA ZAHARBERRITZEKO OBRAK	81.645,51
KANPOKO DEKORAZIOA	33.670,00
FATXADA NAGUSIA	15.195,00
ATZEKO FATXADA	5.325,00
OSAGARRIAK	13.150,00
BARRUKO DEKORAZIOA ETA ALTZARIAK	19.675,00
BIKARIO-ETXEA	29.405,44
BERRERAIKITZEKO ETA ZAHARBERRITZEKO OBRAK	21.200,44
KANPOKO DEKORAZIOA	8.205,00
FATXADA NAGUSIA	2.405,00
ATZEKO FATXADA	650,00
OSAGARRIAK	5.150,00
GUZTIRA	164.395,95

UDALETXEA BERRERAIKITZEKO LANAK

Proiektu teknikoa aztertu eta onartu ondoren, Gastuen eta Diru-sarreraren Aparteko Aurrekontua prestatu zuen Udalbatzak, obrak gauzatzeko. Gastuen atalean, honako hauek jaso zituen: bika-rio-etxearen orubea eskuratzea, Portalea Etxea zenaren lurra erostea, eliz ataria zaharberritzea eta plaza konpontzea.

Gastu horien zenbatekoa Estatuak emandako kalte-ordainaren bikoitza zen. Hortaz, neurri batzuk hartzea erabaki zuen Udalak; besteak beste, 75.000 pezeta eskuratzea eta zerga iragankor bat ezartzea, sagardoaren eta xaboia kontsumoaren gainean.

1886ko urriaren 24an, enkante publikoa egin zuten, obrak kontratatzeko. Bost proposamen aurkeztu zituzten, eta bost horietatik Miguel Salaverria donostiarrarena aukeratu zuten. Hurrengo hilean eman zieten hasiera obrei, aurreko eraikinaren hondakinak eraisten.

Obra horiek Joaquín Fernández arkitektoak zuzendu zituen, baina ez zeukanez Hernanin luza-roan egoterik, Sevillan baitzeukan katedra-postua, Ramón Cendoya obra-maisua izendatu zuen laguntzaile.

Udaletxe berria izango zenaren lehenengo harria jartzeko ekitaldia 1887ko martxoaren 19an egin zuten, goizeko hamaiketan. Herriko banda eta danbolin-jolea izan ziren bertan, Ruperto Erice alkatea buru zela. Udalbatzako kide guztiak bertaratu ziren, baita gonbidatu ugari ere. Jose Roman Berasategi erretoreak bedeinkazioa eman zien obra haiei. Ekitaldi haren oroigarri gisa,

zinkezko kutxa bat jarri zuten sarrera nagusiko ateburuaren azpian egindako zulo txo batean; kutxa horretan, udal-idazkariak ekitaldi horretarako idatzitako jatorrizko akta sartu zuten, egun hartako egunkari batzuk, eta zilarrezko eta kobrezko txanpon batzuk.

1888ko abenduaren 20an, Udalak eta kontratistak hitzarmenaren akta sinatu zuten, berreraikitako eraikina behin-behinean okupatzeko. Udalbatzak haxe erabaki zuen: 1889ko urtarrilaren 1erako, udaletxe berrian kokatuta egon beharko zirela Udalaren egoitza eta zerbitzu guztiak. Handik oso gutxira, Udalbatzak, bilera-geiarako, harrera-geiarako eta alkatetzarako aitzariak eskuratu zituen, lehiaketa bidez. Pieza haiek batzuk Joaquín Fernándezek berak diseinatu zituen. Altxariez gain, aipatutako aretoetarako kristaiezko «armlarma» batzuk, idazkaritzarako aitzariak, eta abar erostea ere erabaki zuen Udalbatzak.

Arkitekto-zuzendariak egindako likidazioaren arabera, guztira 229.085,56pezetara kostatu ziren berreraikitze-lanak; hasiera batean aurreikusitakoa baino gehiago, beraz. Lanetan aurrera jo ahala egindako aldaketek eragin zuten gorakada hori; aldaketa horietako batzuk udaibatzen berak adierazitakoari jarraituz eginak ziren, eta beste batzuk zuzendaritza teknikoaren eta kontratataren aginduz. 1889ko maiatzaren 22an, Udalbatzak, xehetasun guztiak aztertu ondoren, behin betiko jaso zuen obra.

Anekdotak modura, jakin ezazue Joaquín Fernández Ayarragaray arkitekto hernaniarrak uko egin ziolako bere lanaren truke inolako ordainsari jasotzeari, eta haxe adierazi zuela, bere sentipenei buruz:

«(...) ESKER ONA, NIRE BIHOTZAREN SAKONETIK, AIPATURIKO OBRAK DIRELA ETA NIRE HERRIKIDEEI NOLABAIT BALIAGARRI IZATEKO AUKERA EMAN DIDAZUELAKO. (...) NAHIKOA ETA GEHIEGI ORDAINDU DIDAZUE, DAUZKADAN AHALMEN APURREKIN NIRE HERRI MAITEAREN ALDE ZERBAIT EGITEKO OHOREA EMATEAN».



Korporazioak, eskerrak emateko, diamantezko botoi batzuk oparitu zizkion, oroigarri gisa, eta hitz hauek zeuzkan estutxeak inskribatuta:

«HERNANIK BERE SEME AGURGARRI JOAQUIN FERNANDEZI, UDALETXE-KO OBREN PROIEKTUAREN EGILE ETA ZUZENDARIARI. 1890».

OBRA OSAGARRIAK

Nahiz eta Udalak diru askorik ez izan, eta berreraikitze-lanek gastu handiak eragin, beste obra txikiago batzuk ere egin zituen Udalbatzak udaletxe berriaren inguruetan; besteak beste, konpondu egin zuen plaza, iturri eta guzti; zaharberritu egin zuen eliz ataria, Joaquín Fernándezen ideian oinarrituz; enparantza txiki bat egin zuen udaletxearen atzealdean, eta Portura jalsteko bidea konpondu zuen.

Portura zihoan bidea konpontzeko lanek iraun bitartean, ohi baino bide dezente luzeagoa egin behar izan zuten auzotik herrigunera joan nahi zutenek, Karabeletik barna.

Egoera horren aurrean, auzotarrak kexatu egin ziren, eta, hain zuzen ere, horregatik egin zuten Portura jalsteko bidea Leokatik, Urrietara zihoan errepideko arkuetako baten azpitik igaroz.

1942-1943 urteetan, aldaketa bat egin zuten Joaquín Fernández Ayarragaray arkitektoaren proiektuaren arabera udaletxeak zeukan teilatupean, eta atiko bat eraiki zuten bertan: arbelezko teilatu mailakatua zegoen tokian, hormigoizko galnalde laua egin zuten.



UDALETXEAREN GAUR EGUNGO ANTOLAMENDUA

Gaur egun, 2017ko ekainaren 27an, Joaquín Fernández Ayarragaray arkitektoak diseinatu eta zuzendutako bera da Hernaniko udaletxea.

Aldaketa txiki gutxi batzuk baino ez zaizkio egin, eta 1942-1943 urteetako aipatutakoeraldaketak.



Honela banatuta dago udaletxea:

BEHE-SOLAIRUA:

**UDAL ARTXIBOA (LEHEN, ESPETXEA)
ERREGISTRO NAGUSIA**

**LEHEN SOLAIRUA:
(LEHEN, BEHEGAINA)**

**EUSKARA
HEZKUNTZA
KONTU-HARTZAIETZA
ZERGAK**

**BIGARREN SOLAIRUA:
(LEHEN, NAGUSIA)**

**ALKATETZA
IDAZKARITZA
KONTRATAZIOAK
ZERBITZU PUBLIKOAK
EKITALDI-ARETOA
OSOKO BILKUREN ARETOA**

**LAUGARREN SOLAIRUA:
(LEHEN, TEILATUPEA)**

**INGURUMENA
HIRIGINTZA
OBRAK
PARTAIDETZA
AGENDA 21
ALDERDI POLITIKOEN BULEGOAK
BILERA-GELAK**

ERANSKINA

Hernaniko txoko guztien artean bisita gehien jasotzen dituen, argazkietan gehien ateratzen dutena eta usuen grabatzen dena, udaletxeak eta parrokia-elizak osatzen duten multzo arkitektonikoa da. Baina ez orain bakarrik, betidanik baizik.

Gogoan izan garai batean Madril aldera joan nahi zuen orok, Donostiatik nahiz «Bidasoaz bestaldetik», udaletxeko plazatik igaro beharra zeukala nahitaez; izan ere, Zinko Enean eta Kale Nagusian barna joaten zen «errege-bidea» (orain, nolabait esatearren, N-1 bidearen pareko izango litzateke), eta plazako arkutik irteten zen, udaletxean azpitik.

EL AYUNTAMIENTO DE HERNANI

La casa consistorial (Ayuntamiento) de Hernani se ubica en la antigua Plaza Mayor, junto a la Iglesia, en el centro del pueblo que, según la teoría del historiador Domingo de Lizaso, se organizó alrededor de la casa de Alcega.

Las referencias más antiguas se remontan al año 1551, cuando se levantó la fachada de una nueva casa concejil en el mismo emplazamiento de la "vieja", cerca de la Iglesia parroquial, siguiendo la traza del maestro Domingo de Olozabal.^❶

El edificio consistorial cumpliría diversas funciones, desde sede del archivo de la villa hasta fielato o depósito para las armas de defensa, las cuales estaban bajo custodia y cuidado de un vecino designado anualmente para tal menester. Este armamento se exhibía en el alarde del segundo día de Pascua del Espíritu Santo que congregaba a muchos visitantes de las poblaciones vecinas, atraídas por un espectáculo que incluía ejercicios y campeonatos de tiro.

Respecto al archivo de documentos, el concejo de Hernani siempre mostró gran celo en su conservación. Sólo así se explica que después de tantos avatares ocurridos en Hernani (guerras, incendios, saqueos e incluso la voladura del propio edificio consistorial) se conserve uno de los archivos municipales más ricos de la provincia, ejemplo de ello lo tenemos el 23 de septiembre de 1608, cuando el gobierno municipal dicta la norma de que para sacar un documento del archivo será necesario solicitárselo al letrado de la villa, quién analizará los argumentos del demandante y lo transmitirá al concejo en su siguiente reunión.

A iniciativa del alcalde, licenciado Antonio de Miner, el 26 de junio de 1673 se acuerda la construcción de una nueva casa concejil.

El edificio no se planteó para extenderse, como el de ahora, hasta la torre de la iglesia, con lo que la Iglesia Parroquial se pudo mantener sin ninguna edificación adosada a ella.^❷ Antes de iniciar la construcción tuvieron que demoler la casa de Joseph de Aguirre, que se encontraba ubicada en el lugar que hoy ocupa el actual ayuntamiento.

El proyecto inicial de la obra se encomendó al Conde de Villalcazár, y su construcción al hernañiarra Juan de Zavala Garagarza, quien se encargó de la carpintería, dejando la cantera subcontratada a Juan de Lizarraga, maestro cantero de Amasa.

Lizarraga, a instancia de la villa, diseñó un proyecto más ambicioso que el de Villalcazár e hizo

❶ ASTIAZARAN ACHABAL, Maria Isabel. El Ayuntamiento de Hernani. Un proyecto trazado y llevado a cabo por Juan de Lizarraga. Boletín de Estudios Históricas sobre San Sebastián, Dr. Camino, nº 22. San Sebastián, 1988, p. 219

❷ Fue en la segunda mitad del siglo XIX cuando se anexionó la Casa Vicarial.

ganar al edificio 5 pies de altura, dándole además la posibilidad de un mayor desarrollo longitudinal, en función del nuevo planteamiento que se hiciera para las casas de la plaza.


